


Urriak 3, larunbata, ATE IREKIEN eguna antolatu dute Xabier Munibe haurreskolan. Hitzordua goizeko 11:00etan da eta bertaratzen direnek hezitzaileekin elkartzeko aukera izango dute.

ATE IREKIEN helburuak bertako heziketa ildoa azaldu eta bide batez, haurreskola bera erakustea dira.

Azkenaldian, bertako hezitzaileek etorkizuneko gurasoei arreta eskeintzerako garaian, hutsune bat somatzen dute. Guraso asko informazio eske bertaratzen dira, baina beraiek haurrekin lanean egoten direnez, ezin izaten dute behar eta nahi bezala informazioa luzatu.

**Matrikulazio epea**

Hori dela eta, akats hori zuzentzeko asmoz eta **urriak 1etik 9ra haurreskolan hasteko matrikulazio epea** zabaltzen dela probestuz, gurasoentzako ATE IREKIEN eguna antolatu dute.

Gonbidapena pertsona orori luzatzen diote.

Ate Irekiak- 2015eko iraila